

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

2020. urtean Getxoko udalerrian enpleguaren sorrera sustatzeko enpre-tarako laguntzen udal-programaren deialdia eta oinarri arautzaileak. diru-laguntza horiek enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko deialdiaren barnean kokatzen dira (2020ko ekainaren 30eko EHAA, 127).

Getxoko Udalaren helburu nagusia tokiko garapenari bultzada ematea da, jarduera ekonomikoa sustatzearen bidez. Horretarako, Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuaren eginkizuna da, «Getxoko tokiko garapena eta hazkunde iraunkorra sustatzea berrikuntza, ezagutza eta sareko lanaren bidez», eta honako hauen aldeko ekintzak garatzen ditu: enplegu-aukerak, enpresa-sarea sortu, hazi eta hobetzea, eta udalerriko bizitza dinamizatzea, horretarako, baliabide endogenoak eta kanpoko aukerak baliatuz.

Getxoko Udalak ezinbestekotzat jotzen du langabeen kontratazioa suspertuko duten ekintzak egitea, udalerriko enpresei diru-laguntzak emanez.

Laguntza horiek Getxoko Udalak sustatzen ditu, eta Lanbide-EEZ-ak finantzatuta daude 2020ko ekainaren 24ko ebazpenean oinarrituta 2020ko ekainaren 30eko EHAA, 127 zenbakian, 2020rako argitaratuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarenean oinarrituta.

Honako oinarri hauek arautzen dute diru-laguntza hauen esparru orokorra.

0. Araudi erregulatzailea

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (BOE 2003ko azaroaren 18).
- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena (BOE 2006ko uztailaren 25).
- 2020ko ekainaren 24ko Ebazpena, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzak emateari buruzkoa (EHAA 2020ko ekainaren 30).
- Datuak babesteko erregelamendu orokorra (EB 2016/679).
- Otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenarena.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea 2 idatz-zatiko baldintzak betetzen dituzten langabeen lan-kontratatorako laguntzak, 3 hilabetekoak edo gehiagokoak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrekoak.

Adierazitako laguntzen xedetzat jotzen dira 2020ko uztailaren 1etik eta abenduaren 31ren artean hasitako kontratuak.

Kontratuek 3 hilabete iraungo dute gutxienez, eta edozein kontratazio modalitaterekin formalizatu ahal da, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuarekin izan ezik. Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak ezan daitezke gutxienez lanaldiaren %50ekoak.

Diruz lagundutako kontratuen %40, gutxienez, emakumeentzat izango da.

2. Kontratutako pertsonen baldintzak

Kontratutako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:



- Kontratazioaren momentuan 2020ko uztailaren 1 baino lehenagotik Getxon erroldatuta egotea
- Langabea izan behar da eta enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egon behar da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- Bigarren mailarainoko odolkidetasun edo afinitate loturarik ez izatea eta bizikidetzaren unitate beraren parte ez izatea enpresa edo entitate onuradunaren titularrarekin edo gehieneko bazkideekin, ezta haien gobernu-organoetako kideekin ere. Ondore horietarako, gehieneko bazkideztat jotzen da kapital sozialaren %10 baino gehiago duenez borondate sozialaren osakeran egiaz gailentzeko posizioa duen akzioduna edo partaidea.
- Ez da diruz lagunduko enpresa berberak langile bera kontratatzea, aurreko deialdiren batean diruz lagundu bada.

3. Onuradunak

3.1. Oinarri hauetan jasotzen denaren onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak (enpresak, saltokiak, profesionalak, elkarteak...), edozein dela haien izaera juridikoa, langileekin besteren konturako lan-kontratuak egiten badituzte, eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.

Ezingo dira diru-laguntzen onuradunak izan:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan jasotzen den inguruabarretako batean dauden enpresa edo erakunde eskatzailleak.
- Administrazio publikoak, sozietate publikoak, eta haiekin lotutako edo haien mende dauden erakundeak.
- Enplegu Zentro Bereziak.

Eskatzaillea nortasun juridikorik gabeko erakunde bat bada, identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du. Bestela, kontrakoa frogatu ezean, Kode Zibilaren 393. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, erakundeko partaidea denari dagokion zenbatekoari dagokionez.

3.2. Entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gainera, diru-laguntzak lortu ahal izateko:

- 2 idatz-zatian jasotako baldintzak betetzen dituzten langabeak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea.
- Enpresak edo entitateak ez izatea administrazio, erakunde edo organismo publikoen mendekoak edo sozietatea ez egotea haiekin lotuta, edo %25ean baino gehiagoan haiek partaidetuta.
- Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: aurreko hiru deialdietan pertsona horiek kontratatzeagatik enpresa berberean jadanik laguntza jaso dutenak.
- Getxoko Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailleak erakunde horrekiko zerga betebeharrak egunean dituela.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak oinarri hauen 5. idatz-zatian adierazitako nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira, bai presentzialki bai telematikoki.

Aurrez aurrekoa

Eskaerak Udalaren honako bulego hauetakoren batean aurkeztu ahalko dira (HABetan), aldeztu aurretik hitzordua eskatuta:

- Torrene kaleko 3 zenbakiko Herritarrentzako Arreta Bulegoan.
- Mesedeetako kaleko 13 zenbakiko Romo-Areetako Herritarren Arreta Bulegoan, (Getxo Elkartegiaren ondoan).
- Ordutegiak kontsultatzeko: <http://www.getxo.eus>.

*Bide telematikoa*

Eskabideak egoitza elektronikoa honen bidez egingo dira: <http://www.getxo.eus> (AEB Administrazio Elektronikoko Bulegoa Nire kudeaketak etxetik -> Nire erregistro telematikoa -> Egin Eskaera -> Oharpen eredu = Getxo 2020ko enplegurako laguntzen eskabidea).

Dokumentazioa aurkeztu ahal da, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4. artikuluan ezarritako edozein tokitan.

Edozein kontsulta Getxolanen telefonoan egin ahal izango da (Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikorako Zerbitzua) 944 660 140, edo posta elektronikoz, hona bidalita: getxolan@getxo.eus.

Oinarri hauek eta eskaera-inprimakia hurrengo web orrian kontsultatu daitezke: www.getxo.eus/getxolan.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarriak ofizialki argitaratu ondoko egunetik aurrera aurkeztu ahal dira eskaerak, betiere honako epe hauek beteta:

- Deialdi bakarra egingo da, eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko otsailaren 8ra arte.

Bertan sartu ahal izango dira 2020ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra hasitako kontratu guztiak, oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

- Jasotako eskaeretakako ebazpen bakarra emango da 7 idatz-zatien arautzen den emakida-prozeduraren arabera.

Eskabidea aurkeztean, interesdunek oinarri hauen edukia onartuko dute.

5. Laguntza eskatzean aurkeztu beharreko dokumentazioa

Honako hau izango da enpresak edo entitateak laguntza eskatzean goian aipatutako epean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. *Diru-laguntza eskatzeko eredu normalizatua. I. eranskina (1-5 orrialdeak)*
 1. orrialdea.—Eskaera.
 2. orrialdea.—Enpresari edo entitateari dagokion informazioa.
 3. orrialdea.—Hirugarrenen alta-dokumentua, entitate eskatzaileak eta dagokion banku-erakundeak sinatua eta zigilatua (bankuko datuen inprimakia, laguntza helbideratzeko).
 4. orrialdea.—Zinpeko adierazpena. Adierazpen bakarra da, hainbat kontu hartzen dituen. Eskatzaileak adierazpen bateratuan jasotako datu faltsuren bat eman badu, dagokion zehapen-araubidearen mende egon daiteke.
 5. orrialdea.—Kontratatzaileari dagokion informazioa.
2. *Enpresari edo entitateari dagokion informazioa*
 - a) Eskatzailea pertsona fisiko bat baldin bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 - b) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan: identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkapen-botereekin batera.
 - c) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan, enpresa edo entitatearen eratzeko eskrituren fotokopiak, gerora egindako aldaketekin eta dagozkion erregistroetako inskripzioekin.
 - d) Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak sinatutako kontratu pribatua ere aurkeztuko da.
 - e) Foru Ogasunak igorritako ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta- eta baja-ziurtagiriak.



- f) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
 - g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela. (Ofizios egiaztatuko da, titularrak berariaz eta idatziz aurka egin ezean).
3. *Kontratazioari buruzko dokumentazioa*
- a) Diruz lagundutako lan-kontratuaren kopia, eta bertan iraupena eta lanaldia adieraziko dira.
 - b) Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
 - c) Gizarte Segurantzak kontratazio-egunean egindako enpresaren lan-bizitzaren txostena.
4. *Kontratutako pertsonari buruzko dokumentazioa*
- a) Kontratutako pertsonaren NANaren kopia.
 - b) Lanbiden izena emanda egotea egiaztatzen duen ziurtagiria, Enplegu Zerbitzu Publiko batek emandakoa (izena emateko epeei buruzko txostena).
 - c) Kontratutako pertsonaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa eta diruz laguntzeko eskatu den kontratuaren hasiera-egunaren ostekoa (informazio horren xedea kontratatutako pertsona langabezia zegoela egiaztatzea da).
 - d) Kontratutako pertsona kolektibo hauetako batean baldin badago:
 - 1. DSBEaren titularrak edo onuradunak: hori egiaztatzen duen Lanbidek emandako dokumentuak.

6. Gabeziak zuzentzea

Diru-laguntzaren eskaerak edo justifikazioak ez baditu betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, edo harekin batera ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 68. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, interesdunei eskatuko zaie 10 egun baliouduneko epean akats horien zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak bidaltzeko, eta jakinaraziko zaie, halakorik egin ezean, haien eskaera baliogabetzat joko dutela, eta artxibatu egingo dela beste izapiderik gabe, legezko testu beraren 21.1. artikuluan aurreikusitako ondoreekin.

7. Diru-laguntza emateko prozedura eta diru-laguntza emateko irizpide objektiboak

Lehia askeko araubidean emango dira laguntzak, oinarri hauetan xedatutako eskakizunei jarraikiz, publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioak bermatuta.

Deialdi bakarra egingo da, eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko otsailaren 8ra. Bertan sartu ahal izango dira 2020ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra hasitako kontratu guztiak, oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

Laguntza-eskaerak eskaera aurkeztu den hurrenkeraren arabera ebatziko dira, baldin eta behar bezala beteta badaude eta espediente osatuta badago, eta baldin eta diruz lagundutako kontratuen %40 gutxienez emakumeekin egin dela betetzen bada eta Getxoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu kredituaren mugaraino.

8. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko ondorengo zenbatekoko laguntza finkatzen da, kontratazioaldiaren arabera:



- 8.1. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da sortzen den lanaldi osoko lanpostu berri bakoitzeko, 3 hilabete edo gehiago irauten duena.
Zenbateko hori 4.500 eurokoa izango da baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira: DSBEaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 540 hilabeteetan Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak, baldin eta denboraldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira) eta 55 urtetik gorakoak.
- 8.2. Gehieneko laguntzak: 6.000 euro 6 hilabeterako edo gehiagorako lanaldi osoko lanpostu berri bakoitzeko.
Zenbateko hori 9.000 eurokoa izango da baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira: DSBEaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 540 hilabeteetan Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak, baldin eta denboraldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira) eta 55 urtetik gorakoak.
- 8.3. Lanaldi partzialeko kontratazioen kasuan (gutxienez %50eko lanaldia) edo 3 eta 6 hilabete arteko iraupena dutenen kasuan, diru-laguntza lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da.
- 8.4. Kontratuak emakumeei egiten bazaizkie, diru-laguntza %10 handituko da.
 - Diru-laguntzaren azken zenbatekoa ezin da izan kontratatutako pertsonen soldatako eta Gizarte Segurantzako kostuen %75 baino handiagoa, kontratu-amaierarengatik eman beharreko kalte-ordainak eta enpresak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kuota barne. Lehen adierazitako kolektiboetako pertsonak kontratatzen direnean, diru-laguntzaren azken zenbatekoak ezingo da izan soldatako eta Gizarte Segurantzako kostuen %100 baino handiagoa, kontratu-amaierarengatik eman beharreko kalte-ordainak eta enpresak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kuota barne.
 - Prestakuntzarako nahiz ikasketarako kontratuak ez dira diruz lagunduko.
 - Kontratuaren iraupena zenbatze aldera, aintzat hartuko dira horren luzapean, betiere hasierako kontratua 3 hilekoa bada gutxienez.
 - Enpresa bakoitzeko 3 kontratu diruz lagunduko ahalko dira gehienez. Deialdi hau argitaratzean edo diruz lagundutako lehen kontratua egin aurretik 2 edo langile gutxiago duten enpresetarako (langile autonomoak barne), gehienez kontratu 2 lagundu ahalko da diruz.
 - 2021eko ekainaren 30etik aurrerako soldata kostuak ez dira diruz lagunduko, inolaz ere.

9. Baliabide ekonomikoak

Laguntza hauek osatzen dituzten funtsak Getxoko Udalak 2020an helburu honetarako duen aurrekontuaren mende daude: hala, 275.292,12 euro bideratuko ditu horretarako, eta lehenengo deialdian erabili ahalko dira.

Laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kofinantzatzen ditu enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdien babesean (2020-06-30ko EHAA, 127 zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren Emakidaren Ebazpenarekin, 2020ko ekainaren 24koa.

10. Beste laguntzekiko lehia

Oinarri hauetan araututako laguntzak honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuak emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu (betiere kostua gainditzen ez bada).

11. Izapidetzea eta ebazpena

11.1. Oinarri arautzaileotako laguntzak emateko, Getxolan, Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Laneko Sailak jardungo du izapidetze-organo gisa. Berak az-



tertu eta baloratuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta, zeregin hori egoki betetzeko, beharrezkoa deritzon dokumentazio edota informazio osagarria eskatu ahalko du.

11.2. Ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da eta proposamena aurreko paragrafoan aipatu den organo izapidegileak egingo dio. Hala ere, aipatutako organoaren proposamenari jarraikiz, 30.000 eurotik gorakoak ez diren diru-laguntzen ebazpenak emateko eskumena alkateari dagokio, ekainaren 15eko Alkatezaren 2985/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Kide anitzeko organoak emakida-proposamena aurkeztuko dio diru-laguntzaren organo emaileari, ekainaren 26ko Alkatezaren 3235/2019 Dekretuaren bitartez sortutakoa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen duenez, organo izapidegilearen bitartez.

11.3. Ebazpena emateko 2 hilabete izango dira gehienez, 7. artikuluan ezarritako eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, behin ebazpena emateko epea igaro denean enpresa edo entitate interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, ulertuko da eskatutako laguntza ezetsi egin dela.

Onuradunen batek berariaz uko egiten badio, Diru-laguntzen Erregelamenduaren 63.3. artikuluari jarraituko zaio (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa). Ondorio horietarako, berariaz uko egiten dela iritziko da oinarri hauetan finkatutako baldintzaren bat betetzen ez bada.

12. Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntza bi ordainketetan emango da.

1. Eskumena duen organoak ematen dituen laguntzak ebatzi ondoren, %70.
2. Gainerako %30 ordainduko da oinarri hauetan araututako kontratazio-baldintzak egiaz bete direla egiaztatzen denean, 16 idatz-zatian adierazitako justifikazioaren bitartez.

13. Ikuskapenak

Getxolan, Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Laneko Zerbitzuak egin ahal izango ditu diruz lagundutako ekintzei dagozkien egoki irizitako ikuskapen eta egiaztapenak, eta enpresa edo entitate onuradunek eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.

14. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea

Diru-laguntza emateko baldintzak edonola aldatzen badira, emakida-ebazpena aldatu daiteke, baldin eta arau honetan onuradun izateko gutxieneko baldintzak babesten badira. Ondore horietarako, organo eskudunak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, eta bertan aldatuko dira emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

15. Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Deialdiko laguntzaren bat jasotzen duten enpresek, profesionalak eta entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:
 - a) Emandako diru-laguntza onartuko dute. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaien jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunak ez badu esanbidez adierazten uko egiten diola, onartu egin duela ulertuko da.
 - b) Laguntza honen xedea betetzea, 1 idatz-zatian adierazitakoa.
 - c) Getxoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jardueren mendean egotea, baita beste kontrol-organok eskudunak egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolerako beste edozeinen mendean ere (estatukoak nahiz Europakoak), aurreko jarduerak egikaritzean eskatutako behar besteko informazioa emanaz.
 - d) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta, hala badagokio, behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak izatea, onuradunari aplikatu beharreko merkataritza- eta sektore-legediak eskatzen dituen baldintzetan, baita lagun-



tzak arautzeko oinarriek eskatutako kontabilitatearen egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak modu egokian erabiltzen direla bermatzeko.

- e) Laguntza hauen xede diren jarduerak finantzatzeko jasotzen dituen beste laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea Getxoko Udalari. Jakinarazpen hori idatziz egin beharko da, haren berri izan bezain laster.
- f) Udalari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatzen bada, bai aldaketa objektiboa bada bai subjektiboa bada.
- g) Getxolani, Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Laneko Zerbitzuari, helaraztea laguntza-eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotako behar beste informazio edo dokumentazio osagarri.

2. Laguntza hauen entitate onuradunek izaera espezifikoarekin ezarritako betebeharrak izango dituzte:

- a) Bermatzea laguntza hauen xede diren kontratazioarekin edo kontratazioarekin enpresa edo entitate onuradunaren batez besteko langile-kopurua garbi igotzen dela; batez besteko langile-kopurutzat kontratazioa egin aurreko hiru hilabeteetako izango da.
- b) Langilearen lan-egonkortasuna mantentzea laguntza-eskaeran ezarritako al-dian.

Kontratua eteten edo suntsiarazten bada, honako arrazoiak ezingo zaizkio enpresa edo entitate kontratatzaileari egotzi:

- Enpresari egotzi ezin zaizkion arrazoitzat jotzen dira Langileen Estatutuaren 49. artikulua 1.d eta 1.e idatz-zatietan jasotakoak eta 40., 45. (salbu eta 1.b eta 1.b idatz-zatiak), 52. eta 54. artikuluetan jasotakoak (azken bi kasu horietan, langileak ez badio errekurtsua jartzen kontratua suntsiarazteari, edo, bestela, hura bidegabekotzat jotzen ez badu autoritate eskudunak).
- Langileak proba-aldia gainditu ez duelako baja ematea ere ez zaio enpresari egotziko.

Hori horrela, kontratua eteteko eta/edo suntsiarazteko arrazoiak kontratatutako pertsonari egotzi badakizkioke edo proba-aldia gainditu ez duelako sortu badira, pertsona hori ordeztu egin beharko da (hura ordezteko gehieneko epea 21 egun naturalekoa izango da) 2 idatz-zatian jasotakoa betetzen duen beste langile batekin; kontratazio hori egin beharko da diru-laguntza hasi zuen pertsonaren kontratazio-aldiari gehitu eta diru-laguntzaren zenbatekoa ezarri zuen aldira iristeko aldirako, 8 idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz. Kasu horietan, laguntza ekonomikoak ez du gaindituko hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, oinarri hauen 8 idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz. Diru-laguntzaren zenbatekoa mugatu zuen epea bete ezin izatekotan, kontratazio-aldi errearen hainbanaketa bat egingo da.

Kontratutako pertsona 21 egun naturaleko epean ez badute aldatzen, enpresak kontratuko bete gabeko epeari dagokion diru-laguntzaren zati proportzionala ordaindu beharko du.

Kontratu amaieraren kausak enpresari leporatu ahal izatekotan, emandako diru-laguntza osorik ordaindu beharko du.

16. Diru-laguntzaren justifikazioa

Diru-laguntza eman eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da diru-laguntzen justifikazioa, betiere diruz lagundutako aldia amaitu bada. Diruz lagundutako aldia amaitu ez bada, amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean entregatu beharko da. Horretarako, honako dokumentazioa eman beharko da:

- a) II. eranskina beteta.
- b) Honako dokumentazio hau:



- Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko frogagiria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
- Kotizazioaren likidazioaren ordainagiria, langileen nominen zerrenda eta haien ordainketaren egiaztagiria.
- Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela. (Ofizioz egiaztatuko da, titularrak berariaz eta idatziz aurka egin ezean).
- Zinpeko adierazpena (eskaera-eredu normalizatuaren 4. orrialdea).

17. Diru-laguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, baita diru-laguntza ordaintzeko unetik dagozkion legezko interesak ere, laguntzen entitate onuradunek deialdi honetan, emakida-ebazpenean eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte; horrek ez ditu oztopatuko ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak.

Honako hauek joko dira itzultzeko kasutzat:

- Diru-laguntza horretarako baldintzak bete gabe lortzea.
- Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.
- Justifikazio-betebeharra ez betetzea.
- Emakidaren ondorioz onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduketei uko egitea edo horiek oztopatzea.
- Diru-laguntzak gainditzea garatutako jardueraren kostua.

18. Emakiden publizitatea

Emandako diru laguntzak diru laguntzen datu base nazionalera igorriko dira 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Diru laguntzei buruzkoaren, 20. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Gainera, haiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

19. Ordezko araubidea

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoan, aplikagarriak izango dira Getxoko Udaleko Diru-laguntzen emakida arautzen duen Udal Ordenantza, 2004ko abenduaren 30eko osoko bilkuraren ohiko saioan onartutakoa eta 2005eko urtarrilaren 24an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

20. Datu pertsonalak babestea

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorriari (EB 2016/679) jarraikiz, eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, Europako araudiari egokitu artean, Getxoko Udalak eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatu eta Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen informazio-sisteman sar daitezkeela jakinarazten du. Datu horiek soilik erabiliko dira enplegua sustatzeko tokiko jarduerentzako laguntzak kudeatzeko. Horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga ahal izango zaizkie edo komunikatu ahal izango zaizkie, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoari jarraikiz. Interesdunek erabili ahal izango dituzte datuetara sartzeko, horiek ezeztatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko eskubideak.

**21. Zehapen-araubidea**

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea izango da 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak, IV. tituluan; 2/1998 Legeak, otsailaren 20koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zehatze Ahalmenari buruzkoak; eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, xedatutakoa.

Oinarri hauetan beren-beregi jaso ez diren beste kontu guztietarako, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzak emateari buruzko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren Ebazpenean xedatutakoa bete beharko da (2020ko ekainaren 30eko EHAAn, 127 zenbakian, argitaratu zen).

Getxon, 2020ko abenduaren 9an.—Ekonomia-Sustapen eta hirigintza-plangintza, kudeaketa eta Disziplina Arloaren Zinegotzia-Getxoko Udala, Iñigo Urkitza Yáñez

**2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)****I. ERANSKINA****ESKAERA-EREDU NORMALIZATUA**

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Getxoko Udalak langabeen kontratazioa sustatzeko helburuarekin ezarritako diru-laguntzen deialdiari jarraikiz,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1. Ezagutzen eta onartzen dituela aipatutako laguntzen deialdian ezarritako baldintzak eta bete-beharrak, eta egiaztatzen duela enpresak edo entitateak eskaera-formularioetan jarritako datuak egiazkoak direla.
2. Langabetu bat edo batzuk kontratatu dituela, oinarrietan ezarritako baldintzen arabera.
3. Lortutako diru-laguntzaren kargura egindako gastuak eta ordainketak egiaztatzen dituzten dokumentazioa, dokumentu elektronikoak barne, entitate onuradun horrek izango dituela, dagokion administrazioaren egiaztatze- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeen bitartean.
4. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679) xedatutakoa betetzeko helburuarekin, eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, Europako araudi berrira egokitu bitartean, onartzen du bere datuak modu automatizatuan tratatzea eta Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen informazio-sisteman sartzea, enplegua sustatzeko tokiko jarduerentzako laguntzak kudeatzeko. Horiek laga ahal izango dira edo adostasuna komunikatu ahal izango da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoari jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dio Getxoko Udalari:

Onartu dezala eskaera eta eman dakiola dagokion laguntza, goian zehaztutako laguntzen deialdiari jarraikiz.

Getxon, 202...ko(a)(r)en ...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

Sarrerako zigilua

1. orrialdea 8tik



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

Enpresari edo entitateari dagokion informazioa

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Enpresaren edo entitatearen egoitza soziala

Kalea eta zenbakia:		
Udalerria:	Posta kodea:	Telefonoa:
Helbide elektronikoa:	Faxa:	http://

Helbide osoa, jakinarazpenetarako (bete soilik ez bada aurrekoa)

Izena:		
Kalea eta zenbakia:	Udalerria:	Posta kodea:
Posta elektronikoa:	Telefonoa:	Faxa:

Enpresaren jarduera

Ekonomia-jardueren gaineko zerga nagusia:	Deskribapena:
Altaren data:	



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

Hirugarrenen alta-dokumentua

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Eskatu du diru-laguntza honako kontu korrante-aurrezki-kontuan sartzeko

Kontuaren titularraren izen-abizenak:
Bankua edo kutxa:
Sukurtsala:

IBAN		Erakundearen kodea	Sukurtsalaren kodea	K.Z.	Kontu korrante/aurrezki-kontuaren zk.
E	S				

Azpiantzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Getxon, 202...ko(a)(r)en ...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

Sinadura eta banku-erakundearen zigilua



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

Zinpeko adierazpena

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Honako zinpeko adierazpen hau egiten du (X jarri)

- 1.) Enpresetarako laguntzen udal programaren oinarriak eta deialdia onestea, Getxo udalerrian 2020 urtean enpleguaren sorrera sustatzeko. Laguntza horiek enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren barne kokatuta daude (2020ko ekainaren 30eko EHAA).
- Enpresa edo entitate onuradunaren titularrak edo gehieneko bazkideek eta enpresaren gobernu-organoaren kideek ez dute bigarren mailarainoko odolkidetasun-loturarik edo afinitaterik, eta ez dute elkarbizitza-unitaterik osatzen, diruz lagundu beharreko kontratazioaren subjektua den pertsonarekin.
- Ez dagoela diru-laguntzak itzultzeko edo zigortzeko prozeduretan sartuta.
- Ez duela zerga-zorrik Getxoko Udalarekin. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- Ez du zigor penalik edo administratiborik, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukerarik kentzen dionik, eta ez du horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, 4/2005 Legeari, otsailaren 18koari, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoari, jarraikiz sexuagatiko bazterkeriaren ondorioz sortutakoak barne.
- Laguntza-eskaera honez gain, **EZ** duela kontratazio honetarako laguntzarik eskatu edo jaso, eta administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek kontzeptu eta helburu berarekin emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarik EZ duela eskatu edo jaso.
- Horrez gain, konpromisoa hartzen du organismo honi idatziz jakinarazteko kontratazio berberetatik erakunde publiko edo pribatuetan egindako diru-laguntzen eskaerak.

Eta egoki den lekuan ager dadin, idazki hau sinatzen dut.

Getxon, 202...ko(a)(r)en ...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

4. orrialdea 8tik

**2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)****Kontratazioaren datuak**

(Eskatutako kontratuen kopurua adina kopia aurkeztu)

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Kontratututako pertsonari buruzko informazioa

Izen-abizenak:	
NAN/IFZ:	Jaiotze-data:
Helbidea:	Udalerrria eta posta-kodea:
Postua:	
Kontratuaren hasiera-data:	Kontratuaren amaiera-data:
Diru-laguntza eskatzeko kontratu mota: <input type="checkbox"/> 3 hilabete <input type="checkbox"/> 6 hilabete <input type="checkbox"/> 3 eta 6 hilabete artean	Balioetsitako hileko kostua (GS eta kalte-ordainak barne)
Hitzarmen aplikagarria:	
Honako kolektibo honetako pertsona: <input type="checkbox"/> Emakume langabea <input type="checkbox"/> Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra edo onuraduna <input type="checkbox"/> <35 urte <input type="checkbox"/> Iraupen luzeko langabeak <input type="checkbox"/> 55 urtetik gorakoa <input type="checkbox"/> Aurreko bat ere ez	
Getxon, 202...ko(a)(r)en ...	
Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua	

Adierazitako pertsonaren kontratazio-datuak bitartez baimena ematen zaio Getxoko Udalarari bere erroldatze-datuak eskatzeko, baita laguntza hauek kontratatze xedez horiek tratatzeko baimena ere.

Kontratututako pertsonaren sinadura

5. orrialdea 8tik



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

II. ERANSKINA**AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOA (JUSTIFIKAZIOAN BAKARRIK AURKEZTU)**

(Eskatutako kontratuen kopurua adina kopia aurkeztu)

Izen-abizenak:	NAN:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Kontratazioaren datuak

Kontratututako pertsonaren izen-abizenak:		
Kontratuaren hasiera-data:	Kontratuaren amaiera-data:	Lanaldiaren %:
Kontratuaren guztizko kostua (gehienez ere 6 hilabete):		

Nominak	
Hila	Zenbatekoa (Sortutakoa, guztira)
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
Guztira	

Enpresaren kargurako aseguru sozialak			
Hila	Kontingentzien oinarria		Hobariak
	% tasa kotizazioa	Enpresaren kargurako kuota	
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
Guztira			

Eta egoki den lekuan ager dadin, idazki hau sinatzen dut.

Getxon, 202...ko(a)(r)en ...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

6. orrialdea 8tik



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

**ENPRESAK EDO ENTITATEAK LAGUNTZA ESKATZEAN
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

1. Diru-laguntzaren eskaera-eredu normalizatua. I. eranskina (1-5 orrialdeak)

1. orrialdea. — Eskaera.
2. orrialdea. — Enpresari edo entitateari dagokion informazioa.
3. orrialdea. — Hirugarrenen alta-dokumentua, entitate eskatzaileak eta dagokion banku-erakundeak siantua eta zigilatua (bankuko datuen inprimakia, laguntza helbideratzeko).
4. orrialdea. — Zinpeko adierazpena. Adierazpen bakarra da, hainbat kontu hartzen dituena. Eskatzaileak adierazpen bateratuan jasotako datu faltsuren bat eman badu, dagokion zehapen-araubidearen mende egon daiteke.
5. orrialdea. — Kontratzaileari dagokion informazioa.

2. Enpresari edo entitateari dagokion informazioa

- a) Eskatzailea pertsona fisiko bat baldin bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan: identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkapen-botereekin batera.
- c) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan, enpresa edo entitatearen eratzeko eskrituren fotokopiak, gerora egindako aldaketekin eta dagozkion erregistroetako inskripzioekin.
- d) Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak sinatutako kontratu pribatua ere aurkeztuko da.
- e) Foru Ogasunak igorritako ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta- eta baja-ziurtagiriak.
- f) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
- g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela. (Ofizioz egiaztatuko da, titularrak berariaz eta idatziz aurka egin ezean).

3. Kontratazioari buruzko dokumentazioa

- a) Diruz lagundutako lan-kontratuaren kopia, eta bertan iraupena eta lanaldia adieraziko dira.
- b) Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
- c) Gizarte Segurantzak kontratazio-egunean egindako enpresaren lan-bizitzaren txostena.



2020. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2020KO EKAINAREN 30EKO EHAA)

4. Kontratutako pertsonari buruzko dokumentazioa

- a) Kontratutako pertsonaren NANaren kopia.
- b) Lanbiden izena emanda egotea egiaztatzen duen ziurtagiria, Enplegu Zerbitzu Publiko batek emandakoa (izena emateko epeei buruzko txostena).
- c) Kontratutako pertsonaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa eta diruz laguntzeko eskatu den kontratuaren hasiera-egunaren ostekoa (informazio horren xedea kontratatutako pertsona langabezian zegoela egiaztatzea da).
- d) Kontratutako pertsona kolektibo hauek batean baldin badago:
 - a. DSBEaren titularrak edo onuradunak: hori egiaztatzen duen Lanbidek emandako dokumentuak.

JUSTIFIKATZEKO ETA AMAIERAKO % 30AREN ORDAINKETARAKO (DIRU-LAGUNTZA EMAN ETA GEHIENEZ ERE HILABETE EPEAN AURKEZTU BEHARKO DA DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA, BETIERE DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIA AMAITU BADA. DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIA AMAITU EZ BADA, AMAITU ETA GEHIENEZ ERE HILABETEKO EPEAN ENTREGATU BEHARKO DA)

1. II. eranskina beteta

2. Honi dagokion dokumentazioa

- a) Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko frogagiria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
- b) Kotizazioaren likidazioaren ordainagiria, langileen nominen zerrenda eta haien ordainketaren egiaztatagiriak.
- c) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
- d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela.
- e) Zinpeko adierazpena (eskaera-eredu normalizatuaren 4. orrialdea).